

SARE HEZKUNTZA PROIEKTUA 2015-2017

IES FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO BHI

IES FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO BHI

0. IKASTETXEKO ESKAINTZA ETA DATU OROKORRAK.....	4
1. "HEZIBERRI 2020" ETA SARE HEZKUNTZAREN HELBURU ORKORRAK	5
2. IKASTETXEAREN ABIAPUNTUA INFORMAZIOA, TEKNOLOGIA ETA KOMUNIKAZIO EREMUAN	5
2.1. BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK	5
2.2. GIZA BALIABIDEAK: PRESTAKUNTZA ETA IKT-AK EGUNEROKO LANEAN	6
3. IKASTETXEKO SARE HEZKUNTZARAKO HELBURUAK	10
4. PROIEKTUAN PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK. INPLIKAZIO MAILA ETA FORMAKUNTZA	11
5. PROIEKTUAN HONEN BARNE SORTUKO DIREN IKASGAIK ETA MATERIAL DIDAKTIKOAK	14
6. PROIEKTUAREN ZABALTZEA IKASTETXEAN ETA IKASTETXETIK KANPORA	16
7. PROIEKTUAREN JARRAIPENERAKO ETA KOORDINAZIORAKO EGITURA ETA EMAITZEN EBALUAZIOA	16
8. PROIEKTUAREN KRONOGRAMA ETA AURREKONTUA.....	18

IES FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO BHI

Fray Juan de Zumarraga-Durango BHI ikastetxea Durangaldeko erreferentzia zentro publikoa da bigarren hezkuntzan nagusiki, bai duen ikasle kopuruarengatik, baita ia 50 urteko esperientzia duelako ere. Institutuko komunitatea, zenbakiak aldakorrak diren arren, 1000 pertsona inguruk osatzen du, familiak kontuan izan barik.

Institutuko hezkuntza eskaintza

DBH

Maila guztiak, D eta B ereduan

Aniztasunaren trataera: NCE/ACI; HBSP/PREE; CA/DC

Gela Egonkorak

DBHO

Batxilergoa, D ereduan

Arteak

Giza eta gizarte zientziak

Natur eta osasun zientziak

ZIG/AAT gelak

LANBIDE HEZIKETA, D ereduan

Erdi Mailako zikloa: Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzen gidaketa

Goi Mailako zikloa: Gorputz eta kirol ekintzen sustapena

IKASTETXEKO DATU OROKORRAK 2014-2015 ikasturtean

Ikasle kopurua: 855 ikasle, 39 talde

DBH: 432 (1. mailan: 122 / 2. mailan: 106 / 3. mailan: 105 / 4. mailan: 99), 20 talde

Batxilergoa: 311 (1. mailan: 159 / 2. mailan: 152), 11 talde

Lanbide Heziketa: 87 (erdi mailan: 39 / goi mailan: 48), 4 talde

Heziketa Berezia: 25 (GE: 9, 2 talde / ZIG-AAT: 16, 2 talde), 4 talde

Irakasleak: 95

DBHn: 80

Besteak (Batxilergoan soilik, LH, hpb-ko gelak, ...): 15

Hezkuntza laguntzeko espezialistak: 5

Pertsonal ez irakasle: 9 + 12

Administrariak: 3

Atezainak: 3

Garbitzaileak: 3

Kanpoko zerbitzuak: garbiketa enpresa, 8 / jantokiko monitoreak, 4

LANGILE KOPURU OSOA: 126

Ikastetxeko beste proiektuak

Ulibarri programan murgilduta gaude programaren hasi zenetik. Batzorde honek bideratzen ditu hainbat ekintza eskola barruan eta baita herri mailan ere: Santo Tomas Feria, Euskal Astea, Durangoko Liburu eta Disko Azoka, jarduera kulturalak, idazlearekin topaketak...

Hezkuntza laguntzailea ingelesez, Aniztasun proiektua DBHn, IK/KI proiektua, Egin eta Ekin DBHn, Dema Proiektua Lanbide Heziketako zikloetan, Agenda 21, ACEX Liburutegia, Erasmus + eta IKT Heldutasun Eredua garatzen ari diren beste proiektuak dira.

Hezkidetzeta Proiektua 2014-15 ikasturtean jarri da martxan.

1. "HEZIBERRI 2020" ETA SARE HEZKUNTZAREN HELBURU OROKORRAK

Sare Hezkuntza proiektua "Heziberri 2020" Planaren helburu nagusian uztartuta dago. Hauxe da "Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin etorkizuneko belanaldiak ongi prestaturik egon daitezen Euskal Herrian eta munduan bizitzeko"

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikastetxeetako berrikuntza eta hobekuntzaren ardatz izan dira. Orain proiektu berri honen bitartez, hobekuntzak egiten nondik jarraitu zehazten da.

Sare-Hezkuntza Gelan hezkuntza berrikuntza proiektuan agertzen den eran, gure ikastetxeak proiektuak aurkezten dituen hiru helburu orokorretan lana egingo du.

- Metodologia, teknologia, material eta baliabide digitalen erabilera bultzatzea geletan irakasteko eta ikasteko prozesuan.

- Irakasteko eta ikasteko prozesuan, material eta baliabide digitalen erabilera indartzea.

- Metodologia aldaketarako ikastetxeetan beharko den prestakuntza teknologikoa eta pedagogikoa ematea.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) integrazioa eta erabilera hezkuntzan duen garrantzia ukazina da. Erronka horri erantzuteko ahalegin handia egin dugu gure institutuko komunitatearen partaide guztiek. IKTak ikastetxeko ardatz nagusia bihurtu dira. Antzineko operadoreek maneiatzen zituzten telefonogunetik dei guztiak pasatzen ziren bezala, institutuko harreman eta proiektu guztiak IKT "gunetik" pasatzen dira. Horretarako **INIKA**, institutuko **webgunea**, **MOODLE ikastaroak** eta **liburutegiko bloga** sortu eta erabiltzen ditugu.

Pasa den ikasturtean **IKT Hobekuntza Planaren barne MAILA ERTAINA lortu genuen**. Horrez gain, **MAILA AURRERATUA lortzeko egitasmoa dugu, eta horretarako behar diren prozesuak martxan jartzen hasi gara**.

2.IKASTETXEAREN ABIAPUNTUA INFORMAZIOA, TEKNOLOGIA ETA KOMUNIKAZIO EREMUAN

2.1 BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK

Azkeneko ikasturteetan ikastetxeko errealitatea baliabide teknologiko berrien inguruan itzel aldatu da. Gaur 392 ekipo ditugu, horietatik 280 eskola 2.0 programakoak, 8 informatika gela espezifikoak ekipamendu osoarekin, 30 gela arbela digitalarekin, eta ordenagailua eta kanoia duten beste 17 gelatan.

Aldi berean, ikastetxeko azpiegitura teknologikoak kudeatzeko, eta beraien erabilpena arrazionalizatzeko **gelen erreserbarako aplikazio** bat dugu. Horren bitartez, IKT arduradunak informatika gelen erabilpenerako ordu finkoak ikasturtearen hasieran zehazten ditu, eta gainerako orduak, libre geratzen direnak, irakasleek duten baimenekin noizbehinkako erreserbak egin ditzakete.

Horrez gain, ikastetxeko IKT heldutasun proiektuan sartu ginenetik aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugu: ikastetxearen antolamendua hobetu, lana eraginkorragoa egin, irakasleen taldeko lana erreztu lan kooperatiboa bultzatuz,

ikastetxeko proiektuen arteko loturak indartu, gurasoekin hartu emonak maizagotu eta erraztu...

Jorratu dugun beste arlo bat, **komunikazioa** hobetzea izan da, bai ikastetxearen barnean, bai ikastetxetik kanpora, horrela ikastetxean egiten diren jarduera akademikoak, programazioak, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak **web gunearen** bitartez ezagutarazten dira.

2.2 GIZA BALIABIDEAK: PRESTAKUNTZA ETA IKT-AK EGUNEROKO LANEAN

Irakasleen formakuntza egokitu egin da pausoz pauso ikastetxeak jaso edo lortzen zituen baliabide berrien arabera. Helburu nagusia baliabideak behar den eran aprobeztatzea eta ikas-irakaste prozesua eraginkorragoa bihurtzea. Izan ere, ohartu izan gara formakuntzak baliabide berrien erabilera bultzatu egin duela eta eragin biderkatzailea izan. Lehenengo urtean irakasle gutxi batzuek hasi zutena gaur oso zabalduta dugu ikastetxean. Eta orain direla urte gutxi ezinezkoa zirudiena, egun hor dago.

Irakasleen formakuntza IKT arloan honelako arloetan izan da:

- Moodle plataformaren erabilera.
- Smart Notebook programa, arbela digitalaren erabilpenari lotua. Material didaktikoak sortzeko programa hau erabiliz.
- Wiris eta geogebra programak: Marrazketa, Matematika eta Fisika mintegietarako. Kasu honetan, eskualdeko beste ikastetxe batzuetako irakasleek ere hartu zuten parte.
- Net Support programa, ikasleen ekipoak kontrolatzeko, azterketak egiteko...
- Google Sites
- Galdetegiak google-n
- Programa zehatzak irakasleek material didaktiko propioak sortzeko: Aurkezpenak egiteko (PPT), Movie maker, GIMP, Audacity...

IKT-ak ETA EGUNEROKO LANA

Ikastetxearen antolamendurako

1. Inika eta Google Apps-a. Plataforma horiek barne-funtzionamendurako oinarrizko tresnak ditugu (notak, hutsegiteak, ikasleen inguruko oharrak tartekatzeko ...), eta Zuzendaritzak, tutoreek, eta irakasleek oharrak eta deialdiak komunikatzeko bide ofiziala dira.

Inika. Irakasleek eta tutoreek, ondoko atal hauek betetzen dituzte: Norberaren ordutegia (ikasturteko lehenengo egunean), ikasleen hutsegiteak eta berandutzeak, notak, ikasleen inguruan anotazioak eta errekupeazioak. Aldi berean, ikasle taldeen inguruko oharra bai tutoreari, bai gurasoei bidaltzeko... Erabilgarri dago ere hurrengo atala: Inika plataformako **koadernoa digitala**.

2. Institutu mailako posta elektronikoa (@durangobhi.net domeinupekoak) GOOGLE APPS aplikazioaren bitartez kudeatzen da, bai mintegietako bai irakasleena.

Funtzionamendurako arlo hauetan edozein berrikuntza egin dugunean irakasle guztiek prestakuntza saioak egin dituzte. Mintegi-buruek mintegiko postaren jarraipena egiteko ardura dute, posta horren erabilera Departamentuko irakasle guztiei badagokie ere. **Departamentu** bakoitzeko postarako sarrera hau da. Erabilzailea: departamentuarenizena@durangobhi.net

3. GDrive eta **Moodle** aplikaziorako sarrera. Irakasle bakoitzeko domeinuko posta. Erabilzailea: irakaslearenizena@durangobhi.net.

4. Gela erreserbarako aplikazioaren sarrera ikastetxeko domeinuan sartzeko berbera.

5. Gainera, **Hezkuntza departamentuak** ezarri dituen **aplikazioak** daude: Irakaslegunea (irakasle.net posta, nominak, zerbitzu-orria eta ikastaroak, lekualdatze lehiaketa, ordezkoen kudeaketa eta Kudeaketa akademikoa (aktak, notak eta faltak), bakoitzak gure postan jaso ditugun gakoaren bitartez.

6. Webgunea

<http://www.frayjuandezumarraga-durangobhi.hezkuntza.net/web/guest>

Ikastetxeko webguneak atal ezberdinak ditu:

- a) Estatikoak: antolamendua, hezkuntza eskaintza eta zerbitzuak
- b) Dinamikoak: Berriak aukezteko lekuaz gain, argazkiak, orientazioa eta **Baliabide Didaktikoen** atala dugu. Azkeneko atal honetan ikastetxean erabiltzen ditugun material didaktikoen lagina aurkezten da, mintegiz mintegi. Irakasleek, irakasleek baita beste ikastetxeetako ikasle eta irakasleek erabilzeko ere.

Langile ez irakasleak

Azken urteetan langile ez irakasleek ere egin diren berrikuntzetan parte hartu dute.

Administrazio langileek Hezkuntzako aplikazio ezberdinak eta Inika erabiltzen dute. Ikasleen matrikulak, irakasle berrien datuak, pasahitza berriak... kudeatzeko ardura dute. Baita ikastetxeko postaren ardura ere. (015307aa@hezkuntza.net; info@durangobhi.net; fzumarraga@euskalnet.net)-

Atezaintzako langileak: Atezaintzara Inikaren bidez inprimatzeko diren lanak, apunteak edo azterketak heltzen dira. Matxuren berri emateko bide bera erabiltzen da. Beraiek ere posta korporatiboa dute e-posta: atezaintza@durangobhi.net

Ikasleen erabilpenerako

1. MOODLE plataforma erabiltzen dute ikasgai askotan eta horrelako batzuetan ez da testu libururik erabiltzen.

Hauek dira ikastetxean ditugun ikastaroak:

Lanbide Heziketan (14 ikastaro)

Batxilergoan (28 ikastaro)

DBH-n (53 ikastaro)

Proiektuak kudeatzeko eta eskola komunitatean zabaltzeko (3 ikastaro):

- **IK/KI ikastaroa:** Ikasketa kooperatibo metodologia ezagutzeko eta erabiltzen hasteko ikastaroa.
- **Irakurketa teknikak** ikastaroa: Aurten sortutako ikastaro honetan irakurketari buruzko teoriak aztertu ditugu eta datorren kurtsuan teknika horien lantze praktikorako erabiliko dugu ikastaroa. Irakasle berriek bertan izango dute aurten jorratutakoa eta aukera izango dute ikastaro praktiko hori jarraitzeko.
- **Hezkidetzak:** irakaslearen barruko sentsibilizazio eta formakuntzarako ikastaroa.

2. Liburutegiko bloga: <https://fjzdurangokoinstitutukoliburutegia.wordpress.com/>

Liburutegiko blogean ikasleek libre partehartzen dute. Ikasleei zuzenduta egon arren ere, irakasle eta gurasoek ere hainbat sarrera lagungarri aurkitzen dituzte.

Lehen sarrera 2013ko Urriaren 1ean argitaratu genuen. Ordutik egunero sarrera bat idatzi dugu, abuztuan baino ez dugu etenaldirik hartu. Beraz, **558 sarrera** argitaratu ditugu (2015-05-07).

Bloga zabaldu genuenean gure asmoa irakurzaletasuna bultzatzea izan zen, baita ikasleei idazteko aukera ematea. Ondorengo hau lortzeko baliagarria izan da bloga:

- Ikasleek liburutegian dauden liburuak ezagutzeko.
- Liburu horiei buruzko material didaktikoa eskuratzeko.
- Iruzkina eta kritikak egiten ikasteko.
- Institutuko bizitzari buruzko berriak zabaltzeko.
- Hainbat arlo eta irakasgaiekin lotutako informazioa eskuratzeko.

Aurten 4 taldek (2 DBHkoak eta 2 Batxillerrekoak) erabili dute bloga kritikak idazteko irakaslearen gidaritzapean. Ikasleei esperientzia oso motibagarria egin zaie eta idatzitakoa argitaratu behar zenez, arreta handia jarri dute prozesu osoan.

B06 Berritzeguneak gure esperientzia azaltzea eskatu digu beste ikastetxe batzuetan ezagutu dezaten.

Gurasoak

e-INIKA-ren bidez: gurasoek tutorearekin, zuzendaritzakoekin eta bere semealaben irakasleekin komunikatzeko aukera dute. Gurasoen elkarteak ere, posta korporatiboa du. e-posta: gurasoak@durangobhi.net

Hori guztia egiteko gutxieneko formazioa eskaintzen diegu.

Komunitate osoari zuzendutako proiektua: Hezkidetza

2014-15 kurtsorako Hezkuntza Sailak hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektua onartu zuen. Plana zabaltzeko eta planean aurkeztutako hainbat ekintza egiteko IKT-ak erabili izan ditugu:

- Gurasoei planaren berri emateko **e-INIKA** erabili dugu.
- Irakasleei zuzenduta **MOODLE** ikastaroa sortu dugu.
- Egindakoen ekintzen berriak liburutegiko **BLOG**ean eta institutuko **webgunean** sartu ditugu. Adibidez, "Durangaldeko emakume aitzindariak" proiektuaren emaitza: (liburu digitala)

<https://fjzdurangokoinstitutukoliburutegia.wordpress.com/2015/04/10/durangaldeko-emakume-aitzindariak/>

3. IKASTETXEKO SARE HEZKUNTZARAKO HELBURUAK

Proiektua zehaztean "Heziberri 2020" hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa kontuan izan dugu. Hau da, ditugun baliabide eta bitarteko guztiak era koherentean erabili eta norbanakoen eta taldeen inplikazio borondatezko kontzientea lortu. Horretan esperientzia dugu, IKTak bidelagun egiteko irakaslea bera berrikuntzak ematen dituen mesedetaz ohartu behar da.

Irakasleen formakuntzaren inguruan ondorengo hau kontuan izango dugu:

- Hezkuntzarekin lotutako jardueretan arreta jarriko da, eta irakaskuntza hartu behar du aztergai eta gogoetagai. Beraz, lan hildo bat aukeratzekoan gelan aplikazio zuzena izan beharko dituzten material didaktikoak sortuko dira.
- Konpetentzietan eta disziplinarreko planteamendu orokorretan oinarritutako ikuspegia sustatuko da, errepikapenak sahiertzuz eta globaltasuna eta globaltasunaren ikuspuntua erakutsiz.
- Eguneratze zientifikoa, didaktika eta hezkuntza antolaera lotuta joan behar dira eta era orekatuan tratatu behar dira.

Ikasleen beharren inguruan ondorengo izango dugu kontuan:

- Ikas-prozesu esanguratsua sustatu behar dugu.
- Erregistroren aldaketa lortu behar da: irakaskuntza berbalista batetik, talde edo banakako ikerketa-irakaskuntza batera pasatzeko.
- Ikasleak ikaste prozesuan elementu aktiboa bihurtuko da, bere ikasprozesuaren jabe bihurtuz.
- Ikasleak beraien ikaste prozesuko protagonistak izan beharko dute: informazioa bilatzen, aztertzen, hautatzen, lantzen, antolatzen, integratzen eta azaltzen.

Proiektuaren berariazko helburuak:

- Ikastetxeak dituen baliabideak aprobetxatzea, bai irakaslearen lana errazteko, baita ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hobetzeko.
- Informazioa bilatzeaz gain, aztertzea, hautatzea, antolatzea eta integratzea.
- Gaitasun digitalak indartzea (bai ikasle bai irakasleonak).
- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen neurriera egokitutako tresna errazak eta eraginkorrak erabiltzea eta geureganatzea hezkuntza prozesuan islatzeko.
- IKT euskarriko (objektu digitalak, simulazioak, bideoak...) materialak aztertzea, erabiltzea eta ikaste prozesuan eraginkorrak izan badira programazioetan txertatzea.

- Ikasgai ezberdinen helburuekin lotutako material didaktikoak prestatzea eta ahal izanez gero disziplina ezberdinetakoak elkarrik lantzea ere.
- Irakasleek tresna desberdinen erabileran trebatzea eta hauek eguneroko gelako lanean txertatzea.
- Irakasleei proiektu hau aurrera eramateko formakuntza berariazkoa eskaintzea, bai ikastetxeko baliabideak aprobetxatuz (IKT arduraduna edo horretan trebatuta dauden irakasleak) bai kanpokoak.
- Beste ikastetxe batzuetako proiektu berriztatzaileak ezagutzea eta lan kolaboratiboak sustatzea, baita gure aurrerapenak ezagutaraztea ere.
- Argitaletxeekin harremanetan jartzea eta zernolako plataforma digitalak sortzen ari diren aztertzea hurrengoko ikasturtean "liburuak"/ baliabide digitalen aukeraketa egin baino lehen.
- Lankidetzako eta elkarlana bultzatu, ideien trukaketa erraztuz, giza jarrera egokiak sendotuz.

4. PROIEKTUAN PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK. INPLIKAZIO MAILA ETA FORMAKUNTZA

Hiru inplikazio maila proiektuan parte hartzen duten irakasleen artean:

1. IKT batzordeko partaideak

Zuzendaria	Esteban Agirre
Idazkaria	Jose Ignazio Zuazubizkar
Ikasketaburua eta Web gune arduraduna	Maite Arin
IKT arduraduna	Marga Garizurieta

2. IKT Formakuntzan parte hartzen dutenak, beraien beharren arabera aukeratuko dute ondoen egokitzen zaien ikastaroa. Horretarako 2015eko ekainean galdetegi bat pasatuko zaie eta emaitzen arabera taldeak egingo dira.

AGIRREGOMEZKORTA ARANBURU, Susana

INGELESA

AGORRIA PARDUELES, Maite

FISIKA-KIMIKA

AIARTZAGUENA AGIRREBEITIA, Ricardo

TEKNOLOGIA

ALEGRIA ITURRI, Begoña	INGELESA
AMENABAR TALAVERA, Lourdes	GAZTELERA
ARANBERRI ARESTI, Joseba	FISIKA-KIMIKA
ARRIETA BARRUTIA, Amaya	EUSKARA
ARTEAGA IRIBARREN, M. Helena	FRANTSESA
AZAOLA LOPEZ DE GUEREÑO, Xabier	MATEMATIKA
AZCARATE LLORCA, M. Angeles	EUSKARA
AZKARATE MATURANA, Pedro Fco.	EKONOMIA
AZKARRAGAURIZAR IGARTZA, Pedro	ORIENTAZIOA
BARRAINKUA AROZTEGI, Nagore	MATEMATIKA
BERNAOLA BILBAO, Garikoitz	MATEMATIKA
BILBAO GOIKOETXEA, Asier	KIROL ETA GOPUTZ JARD
BOVEDA GARAI, Xabier	EUSKARA
CONTRERAS HERNANZ, José Agustín	GAZTELERA
ELGUEZABAL CANDINA, Itziar	MATEMATIKA
ERRAZTI IGARTUA, Alberto	EUSKARA
ETXEGIBEL ALBERDI, Nerea	KIROL ETA GORPUTZ JARD
GARIZURIETA BADIOLA, Margarita	GIZARTEA
GOIRI MONTES, Josu	TEKNOLOGIA
GONZALEZ ERAUZKIN, Amaia	GAZTELERA
GORRIÑO VICANDI, Jon	MUSIKA
JAUREGI BEDIAGA, Jorge	KIROL ETA GORPUTZ JARD
KEREXETA FERNANDEZ, Itziar	MATEMATIKA
LANZ ZARANDONA, Ricardo	FILOSOFIA
LARREA LANDA, Yolanda	GIZARTEA
LARRINAGA LARRAÑAGA, Imanol	GAZTELERA
LASA BEGIRISTAIN, Jose Inazio	FILOSOFIA
LASA BEITIA, Bittor	GIZARTEA
LASKURAIN ERREKA, Mikel	KIROL ETA GORPUTZ JARD
MUNITXA DUÑAITURRIA, Celia	MATEMATIKA

PEREZ HERREROS, Ana Isabel	FILOSOFIA
RENOM ZALDUA, Lourdes	GIZARTEA
SABIN HERNANDEZ , M. Luisa Helena	INGELES
UNZUETA MUGARZA, Iñigo	TEKNOLOGIA
URIZAR ARDANZA, M ^a Teresa	MARRAZKETA
VEGA BADIOLA, Ana Belén	ORIENTAZIOA
VILLA ARTETXE, Tere	MATEMATIKA
ZAMALLOA ASTOBIZA, Gorka	KIROL ETA GORPUTZ JARD
ZARANDONA ARKUENAGA, I. Xabier	KIROL ETA GORPUTZ JARD

3. Ikastetxeko irakasle guztiak Ikastetxe osorako hobekuntza eta berrikuntza bat ezartzen denean, formakuntza eta argibideak jaso egiten baitituzte.

Irakasleen formakuntza

1. Formakuntza ikastetxean: Aurtengo formakuntzan ondorengo atalak sartuko ditugu:

- **Moodle bertsio berria.**
- **Googe sites eta Drivek ematen dituen aukera berriak.**
- **Webgunearen kudeaketarako talde laguntzaile sortzeko.**
- **Material didaktiko berriak sortzeko programak eta baliabideak**

Beharrianak antzeman ondoren, formazio saio bereziak antolatuko ditugu aplikazio errazak erabiltzen ikasteko. Aplikazio horiekin informazioa lantzeko eta aurkezteko beste era batean aukera ematen dute:

- **Kontzeptu-mapak** egiteko on-line aplikazio errazak: POPPLET edo MINDOMO (ikasleekin erailtzeko, baina irakasleentzat CMAPS TOOLS oso interesgarria da aukera gehiago ematen dutelako ikasleei gaiak azaltzeko)
- **Denbora-lerroak** egiteko aplikazio errazak: DIPITY edo TIMELIME
- Aurkezpenak egiteko: **GLOGSTER** (poster digitalak) eta **PREZI**
- Ahozkotasuna lantzeko aplikazioak: **AUDACITY**

- Pelikula, dokumental errazak edo booktrailerrak egiteko: **MOVIE MAKER eta YOUTUBE-ko aukerak.**
- SCRIBUS programa: ikastetxeko aldizkarirako artikulak idazteko

2. Formakuntza kanpoan edo kanpoko adituek ikastetxean emango dutena:

- **Geogebra sakontzeko, Matematika eta Marrazketa.**
- **Geogebra Fisikarako.**
- **IOS dispositiboak** (8 ordu)
- **Sormena eta eragiletasuna IOSein** (8 ordu)
- **Ipad-a ikaste prozesuan:** Unitate didaktikoen diseinua eta lanaren fluxua. (4ordu ikastaroa eta (4 ordu) modulo praktikoa.
- **“Esperientziak bateratzen”** (20 ordu) Lan taldea.
- Argazkiak, bideo irudiak editatzeko **PREMIUM** edo baliokidea lehaketetan parte hartzeko: BELDUR BARIK programaren barne.

5. PROIEKTU HONEN BARNE SORTUKO DIREN IKASGAIK ETA MATERIAL DIDAKTIKOAK

1. Datorren ikasturtean Matematika Mintegiak bi ikasgai berriak eskainiko ditu, baliabide digitalen bitartez garatuko direnak:

“MATEMATIKA ETA GEOGEBRA” 1 DBH

“MATEMATIKA ETA GEOGEBRA” 3 DBH

*Ikasgai horien programazio laburtuak proiektu honen bukaeran 1 gehigarrian agertzen dira.

2. Material didaktiko digitalen sorrera ikasgaia guztietara zabalduko da, baina arreta berezia jarriz DBH1 eta DBH2 mailako ikasgaietan 2015-2016n. Hurrengo ikasturtean 2016-17, proiektuaren garapenaren ondorioz egokia ikusiz gero, dispositibo berriak erosteko, beti ere ikasgai gehienak formato digitalean dauden kasuetan.

Esparru horretan, eta proiektuaren 2. ikasturteko abagunean, ondoko maila eta arloetan aurreikusten dugu material digitalen sorrera eta erabilera:

DBH-1ean

DBH-2an

DBH-3an

DBH-ean

Gainera, Batxilergoan eta Lanbide Heziketako zikloetan ere garatuko da...

3. Liburutegiko bloga

- 2015ko ekainaren bukaeran **IKASBLOGAK** jardunaldietan bloga aurkeztu nahi dugu.
- Datorren kurtsorako blogarekin jarraitzeko irakasle taldetxo batek formakuntza berezia egingo du kudeatzen ikasteko eta orain arteko lanari jarraipena emateko.
- Ikasleentzako material berezia prestatuko dugu kritikak egiten irakasteko eta talde gehiagotan jarraituko dugu idazteko esperientziarekin.

4. WEBQUEST TAILERRA ETA GOOGLE SITES

GOOGLE SITES erabiltzen ikasteko formakuntza saioak antolatuko ditugu. Horien helburua, aplikazio hori erabiltzen ikasteaz gain, webquest-ak sortzea izango da ikasleekin lantzeko, baita beste irakasleekin partekatzeko.

5. BLOG TAILERRA BLOG-TAILERRA

Blogak sortzen eta kudeatzen ikasteko, batez ere, liburutegiko bloga kudeatzen laguntzeko webgunea bezala, pertsona bakar batek kudeatzen du eta laguntza behar duelako.

6. MOODLE: "ikasten ikasteko" konpetentzia sustatzeko. Erdi Mailarako **SARBIDE FROGAK** izeneko ikastaroa zabalduko dugu. Bertan, azken urteetan Erdi Mailako sarrera frogarako azterketak eta materiala sartuko dugu. Horrela 4. maila gainditzeko arazoekin dabiltzan ikasleek aukera izango dute frogara hori prestatzeko euren kabuz.

7. HEZKIDETZA

- Plan honekin lotutako ekintzak sakabanatuta egon beharrean blog edo sites bat sortuko dugu. Egindako guztia ikasleek, irakasleek, familiakoek ikus dezaten.
- Datorren kurtsoan hainbat proiektu egingo ditugu ikasleekin emakumeen lorpenak historian, zientzian, kirolean... zabaltzeko. Asmoa hori guztiarekin sites-a zabaltzea da eta ikasleei tresna hori kudeatzen irakastea.
- Beldur Barik lehiaketarako bideoa aurkezteko asmoa daukagu.

- Sarean argitaratzeaz gain, Berritzeguneko mintegiko foroan partekatuko dugu egindako guztia, bai ekintzak bai proiektuak. Horregatik ezinbesteko da aurreko blog eta sites sortzea, horiek ematen baitute aukera partekatzeko edo lankidetzan aritzeko.

6. PROIEKTUAREN ZABALTZEA IKASTETXEAN ETA IKASTETXETIK KANPORA

Orain arte, ohiko bideak erabili ditugu proiektu honen berri emateko. Lehenengo eta behin IKT taldeak ezagutu zuen, gero klaustroan azaldu zen eta azkenik Eskola Kontseiluan ezagutzera eman zen. , proiektua onar zezan.

Proiektua martxan jarri eta zabaltzeko, lehenik eta behin parte hartuko duten irakasleekin bilerak eta koordinazio eta prestakuntza saioak egingo dira irailaren hasieran, proiektua garatzen lagunduko diguten adituen laguntzaz. Proiektua aurrera joan ahala, institutuko koordinazio organoetan (pedagogia batzordea, klaustroa) horren berri emango da, proiektu beraren eragina zabaltzeko asmoz.

Gainera, proiektua garatuko den mailetakoa eta arloetakoa ikasleei eta horien familiakoei proiektuaren berri emango zaie berariaz egingo diren bileren bitartez, euren iradokizunak jasotzeko ere.

Gerora begira, sortuko diren materialak ikastetxeko **MOODLE** plataforman jarriko dira, ikasgai gehienak bertan agertzen baitira. Ikastaro hauek denek erabilpenerako direnez, hor jarriko ditugu egingo diren material didaktiko berriak.

Horrez gain, urteak daramatzagu konpartitzen egin ditugun materialak eta ezagutzen ditugun web-guneak. Horietako asko ikastetxeko web gunean horretarako sortu genuen esparruan daude: **BALIABIDE DIDAKTIKOAK**. Atal horretan kokatuko ditugu proiektu honi esker sortutako material didaktiko berriak.

Azkenik, Sare-Hezkuntzako proiektuan parte hartuko duten beste ikastetxeetako arduradunekin elkarlanean aritzeko asmoa dugu, bai Berritzegunearen bitartez antolatuko diren mintegietan, zein ikastetxeen artean sor daitezkeen elkarlanerako foroetan eta beste mintegietan parte hartzen.

7. PROIEKTUAREN JARRAIPENERAKO ETA KOORDINAZIORAKO EGITURA ETA EMAITZEN EBALUAZIOA

Lehen aipatutako IKT batzordea eta IKT formakuntza taldea izango dira proiektuaren jarraipenaz eta koordinazioaz arduratuko diren egiturak, horretarako ikastetxeko urteko planean finkatuko den egutegiaren arabera. Plana berak

zehaztuko ditu zein izango diren ebaluazio uneak, ikastetxeko beste proiektuen ebaluazioarekin batera.

Formakuntza erabilpen praktikora bideratu behar da, gelako eguneroko ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan erabilgarria den zerbait sortzeko. Ordu bat astean IKT taldeko kideak elkartzeko, beraz ordutegiak egiteko kontuan hartuko da.

Google docs aplikazioan egindako galdetegiaren emaitzak erabiliz, taldeak egin formaziorako. Asteazken arratsaldeetan edota goizeko ordu libretan formakuntza antolatuko da.

Formakuntzan eta materialen elaborazioan parte hartuko duten irakasleek 8-12 orduko formakuntza jasoko dute, bai ikastetxean, bai ikastetxetik kanpo, beraien beharren arabera. Hurrengo formakuntza orduetan irakasleek materialak aukeratu edo sortuko dituzte, ikasitakoa praktikara eramanez.

Formakuntzaren amaierako orduak beste talde edo irakasleek egindako lana ikusteko eta aztertzeko erabiliko dira.

Egin diren lanen aplikazio praktikoaren balorazioa egin eta hurrengo programazioetako curriculumean txertatu.

Lana amaitutzat emango da ikastetxeko webgunean argitaratzen denean.

Beti ere, baloratuko da egindako material didaktikoak proiektu honen helburuekin bat datozen.

Proiektuaren Ebaluazioan bi atal aztertuko dira:

- Proiektu beraren garapenaren ebaluazioa.
- Proiektuaren ikaskuntzako prozesuen emaitzen ebaluazioa.

Lorpen adierazleak bi motakoak izango dira:

- Kuantitatiboak: arrakasta akademikoa ebaluatzeko eta aurrerapenak aztertzeko datuen azterketa sistematikoa.
- Kualitatiboak: egindako lanak, ekarpenak, gogoetak, ..., biltzea eta aurkeztea proiektuaren balorea azalarazteko.

Horiek aztertzeko ondoko atalak jasoko dituzten tresnak erabiliko dira:

- Kanpoko eta barneko probetako ikasleen emaitza akademikaok.
- Ikasleen konpetentzietan hobekuntza jasoko duten proben emaitzak.

- Partehartzaileen gogobetetasun maila: ikasleak, irakasleak, familiak, zuzendaritza...

8. PROIEKTUAREN KRONOGRAMA ETA AURREKONTUA

JARDUERA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
2015-2016 ikasturtea		
Galdetegia irakasleen formakuntza eta beharizanak zehazteko	2015eko ekaina	IKT arduraduna
Zuzendaritza, IKT arduradun eta inplikaturako irakasleen arteko bilerak proiektua abiatzeko	2015eko iraila	IKT arduraduna
Proiektuan parte hartuko duten ikasle eta familiekin bilerak	2015eko iraila	IKT arduraduna
Proiektuan laguntza emango duten enpresako adituekin bilerak eta auditoriaren hasiera	2015eko iraila	IKT arduraduna
Proiektuan parte hartuko duten ikasleen hasierako ebaluazioa, proiektuaren helburuen arabera	2015eko iraila	IKT arduraduna
MOODLE 2.4 bertsioa (3 ordu)	2015ko Irailaren lehenengo astea	IKT arduraduna
GOOGLE SITES ETA DRIVE (8-10)	2015ko Urria-Azaroa	IKT arduraduna
GEOGEBRA SAKONTZEN (5 ordu)	2015ko Urrian	Kanpoko aditua
Irudia eta bideo edizioa (10 ordu)	2015ko Azaroan	Kanpoko arduraduna
IOS dispositiboak (8 ordu)	2015ko Irailaren lehenengo hamabostaldian	Kanpoko arduraduna
Sormena eta eragiletasuna dispositibo mugikorretan (8 ordu)	2015ko Irailaren lehenengo	Kanpoko arduraduna

	hamabostaldian	
Ipad-a ikaste prozesuan: ikaste-irakaste unitateen diseinua eta lan-metodologiak (8 ordu)	2015ko Urrian	Kanpoko arduraduna
e-learning plataformak ezagutzen eta erabiltzen (iTunes, iBook Store...) (20 ordu)	Ikasturtean zehar	Kanpoko arduraduna
Esperientziak sortzen eta bateratzen. Prestakuntza eta lan-taldeak (20 ordu)	Ikasturtean zehar	Kanpoko arduraduna
Kontzeptu mapak egiteko online aplikazioak Denbora lerroak Aurkezpen modernoak Youtubeko aukerak (10 ordu)	Ikasturtean zehar	IKT arduraduna
Proiektuaren bitarteko ebaluazioa: proiektuaren eta kompetentzien ebauazioa, gogobetetasun-inkestak...	2016ko Ekainean	IKT arduraduna
2016-17 ikasturtea		
Proiektuen bitarteko lan-metodologiak: Problemetan oinarritutako ikaskuntza (PBL), Norbanako ikaskuntza ingurugiroa (PLE) (10 ordu)	2016ko iraila	Kanpoko arduraduna
Materialak eta ikastaroak sortzeko aplikazioetan sakontzen: iTunes eta iBooks (16 ordu)	2016ko urria	Kanpoko arduraduna
Esperientziak sortzen eta bateratzen. Prestakuntza eta lan-taldeak (20 ordu)	Ikasturtean zehar	Kanpoko arduraduna
Ikastetxe bertako irakasle berrien formakuntza metodologia eta aplikazio berrietan	Ikasturtean zehar	IKT arduraduna
Proiektuaren azken ebaluazioa: proiektuaren eta kompetentzien ebauazioa, gogobetetasun-inkestak...	2017ko Ekainean	IKT arduraduna

AURREKONTUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Aurrekontuaren laburpena (2015-2017)	
Diagnostikoa eta Auditoria, proiektuaren laguntza	2.000 €
Formakuntza: kanpoko adituak eta horien dietak, eta materialak	7.600 €
Lizentziak: apps, produktibitate aplikazioak eta argitaletxeko plataformak	1.500 €
Guztira	11.100 €

Justifikazioa

Diagnostikoa eta Auditoria, proiekturako laguntza: atal honetan proiektua martxan jartzeko egin beharreko planifikazio estrategikoa eta ikastetxeko eragile guztietan IKT integrazio maila eta proiektuaren garapena zabaltzeko prozesuak; proiektua aurrera eramaten koordinazioa eta laguntza teknikoa emango duten adituak. Guztira: 200 €

Kanpoko formakuntzarako adituen ponentziak, materialak eta dietak barne. Atal honetan, ez dira sartuko ikastetxe bertako baliabiden bitartez egingo diren formakuntza saioak.

- . Geogebra eta soinu eta irudien edizioa, 25 ordu: 2000 €
- . IOS dispositiboak, sormena eta eragiletasuna, unitate didaktikoen diseinua eta lan-metodologiak, 24 ordu: 1.920 €
- . e-learning plataformak, materialak eta ikastaroak sortzen iTunes eta IBooks aplikazioetan, 36 ordu: 2.880 €
- . Proiektuen bitarteko lan-metodologiak, 10 ordu: 800 €
- .GUZTIRA: 7.600 €

Azkenik, doainik ez diren apps-ak, ordaindu beharreko produktibitateko aplikazioak (Adobe serie osoa, eta abar) eta argitaletxeen irakaslearen gestiorako plataformak (ikasleen materialetatik aparteak) aurreikusten diren gastuak: 1.500 €